

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

Administrazio Kontseiluaren buruaren 158/2023 Ebazpena, abuztuaren 25ekoa, zeinaren bidez onartzen baita Gazteriaren Foru Erakundearen (Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa) zerbitzurako lan-kontratadun langileak kontratatzeko hautaketa-prozesuaren deialdian Uretako Kirol Jardueretan Espezialista lanposturako hautatutako pertsonaren kontratazioa. Hautaketa-prozesu hori Gazteriaren Foru Erakundearen 792/2019 eta 171/2022 erabakietan aurreikusita dago, eta erabaki horien bidez onartzen dira aipatutako urteetarako lan-eskaintza publikoak

138/2022 Ebazpena, ekainaren 16ko Administrazio Kontseiluaren ebazpenaren bitartez onartu ziren Gazteriaren Foru Erakundearen 2022ko hautapen prozesuak arautzen duten oinarri orokorrak.

2023ko ekainaren 13an, onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzen da dago-kien lantoki zehatza adieraziz, eta erreklamazioak aurkezteko hamar egun balioduneko epea ezarri.

Uztailaren 6ko 131/2023 Ebazpenaren bidez, Uretako Kirol Jardueretan Espezialistaren lanposturako hautatutako pertsonaren behin betiko zerrenda argitaratu zen, honako lanpostu honi atxikita:

IZENA	LANPOSTUA	KODEA
Janire Gómez Uruxturtu	Uretako Kirol Jardueretan Espezialista	161155

Oinarri arautzaileen 8. apartatuarekin bat etorritik, pertsona honek aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ditu ezarritako epearen barruan, eta agiri horiek aztertuta, ondorioztatzen da izangaiak eskatutako betekizunak betetzen dituela; horrenbestez, egokia da pertsona honek langile lan kontratadun gisa kontratatzea, lanpostuen zerrendan lanposturako ezarritako baldintzekin bat etorritik.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluko lehendakaria den aldetik, funtzio publikoan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko sailarekin elkarlanean, Erakunde Autonomoko funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarriak onartzea; bere ardura izango da, baita ere, prozedura horiek ebaztea.

Horregatik guztiagatik, ebazpen hau ematen da:

EBAZPENA

Lehenegoa. Gazteriaren Foru Erakundearen 2022ko hautaketa-proben deialdiari dagokion Uretako Kirol Jardueretan Espezialistaren lanpostuan sartzeko deialdian, jarraian adierazten den lanpostura atxikita dagoen izangaia kontratatzea onartzea:

LANPOSTUA	LANPOSTUA	KONTRATAZIO ERREGIMENA	IZEN-ABIZENAK	NAN
161155	Uretako Kirol Jardueretan Espezialista	Aldizkako Lan-kontratu Finkoa	Janire Gómez Uruxturtu	7#.#.#.#55A

Bigarrena. Izendatutako izangaiak hilabeteko epea du lanpostuaz jabetzeko, izendapena komunikatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Epe hori hamabost egun luza daiteke, izangaiak hala eskatzen badu, eta horretarako bidezko arrazoirik izanez gero.

Ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezarritako epealdiaren barruan lanpostuez jabetzen ez bada, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionarioa izateko eskubideak, deialdiaren ondoriozkoak, galduko ditu.

Hirugarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, aukeran, berraztertze errekurtsua, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean. Hain zuzen, hala egin ahal izango da bat etorritik uztailearen 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren, 123. artikularekin eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen 123. artikularekin.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abuztuaren 25a

Kultura eta Kirol diputatua
ANA MARIA DEL VAL SANCHO